




SEME EZARRI BAINAUK

Doinuaren sortzailea: Pantxo Etxeberri (Lekuine, Lapurdi). Baigorriko (Behe Nafarroako) kultur aste baterako sortu zuen doinua, Xalbadorri egin zioten omenaldirako.

Bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Behe Nafarroa).

Bertsoaren berri

"Semeari" sortako lehen bertsoa da hau. Xalbadorren semea, Mixel, Ameriketara joana zen; semeak gutuna idatzi zuen etxera, puska batean ez zela itzuliko esanaz. Xalbador aitek, penaturik, sorta honekin erantzun zion.

Kantua ezagun egin da "Aire ahizpen" ahotsean (Xalbador zenaren bilobak dira). Horra etxeko hiru belaunaldi lotzen dituen sorta: Fernando Aire "Xalbador", Mixel Aire eta "Aire ahizpak".

Seme ezarri bainauk dudazko **trantzean**,
kantatzerat noakik, pena **bihotzean**;
esperantzaz beteak ginenak **artean**,
hire azken aldiko berriak **hartzean**,
hotz ikara ilun bat sartu duk **etxean (bis)**.

